

Mondragon Unibertsitateak diplomak banatu dizkie Ingeniaritza Teknikoko hainbat espezialitatean titulua lortu duten 272 ikasleri

2008/04/08

Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak diplomak banatu dizkie Ingeniaritza Teknikoko hainbat espezialitatean titulua lortu duten 2007/2008 promozioako 272 ikasleei. Mekanika arloko Ingeniaritza Tekniko Industrial; Elektronika Industrialeko Ingeniaritza Teknikoa; Informatika Sistemen Ingeniaritza Teknikoa; Diseinu Industrialeko Ingeniaritza Teknikoa; Telekomunikazioen Ingeniaritza Teknikoa, Telekomunikazio Sistemen espezialitatean; eta Telematika dira espezialitateak.

Diploma-banaketa, Arrasateko Amaia Antzokian izan da. Vicente Atxa Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoko zuzendariak inauguratu du ekitaldi akademikoa, eta losu Zabala Mondragon Unibertsitateko Errektoreak eman dio amaiera. Diplomak banatzeko ekitaldian, Alberto Ortiz de Zarate Eusko Jaurlaritzako Administrazioa Eraberritzeko saileko arduradunak 'Empresa 2.0' hitzaldia eman du.

Titulazioen azterketa

Guztira, 272 ikaslek jaso dute Ingeniaritza Teknikoko titulua, beren titulazioetako ikasketak gainditu ostean. Sexuaren arabera azterketa eginez, ikasle guztien ia %27 emakumeak dira eta gehienek Mekanika arloko Ingeniaritza Tekniko Industrial ikasi dute. Ondoren, Diseinu Industrialeko Ingeniaritza Teknikoan daude emakume gehien. Hizkuntzari dagokionez, ikasleen %78k euskaraz egin dituzte ikasketak, eta %22k gaztelaniaz.

Ikasketen arabera azterketa eginez gero, joan den urteko belaunaldian titulua eskuratu duten ikasle gehienek Mekanika arloko Ingeniaritza Teknikoa ikasi dute, 113 ikaslek lortu dute espezialitate horretako diploma. Ondoren, Elektronika Industrialeko Ingeniaritza Teknikoan bildu dira ikasle gehien, 58 guztira.

Titulua eskuratzeko, ikasle guztiek egin behar izan dute Ikasketa Amaierako Proiektua, urtebetez gutxi gorabehera, enpresaren batekin elkarlanean: Arcelor, Airbus Francia, Eroski, Fagor, Grupo Ulma, Ibermatica, Ikerlan, Ideko, Orona, Mondragon Sistemas de Información eta Ulma lantegietan, besteak beste. Gainera, hamaika ikaslek atzerrian egin dute ikasketa amaierako proiektua.

Honako datu hau ere garrantzitsua da: ikasketak amaitu eta titulua eskuratuta, Ingeniaritza Teknikoko ikasleen %99k hiru hilabeteren buruan aurkitzen dute lana.

Argazki bilduma



Presidentzi-mahaia